

UNBE TA ANDRA MARIA

Joan dan aurtengo udabarrian senar-emazte batzuk aurkitu nebazan eta ez dakit zer zala-ta, alkarraz berbetan asi giñan.

Andreak ba-ekian euskeraz eta gizonak ulertu bai, baiña berba egin ez.

Gizon au Andra Maria'ren zale aundia zan eta bere oneraspen au zabaltzen zintzoa ta sutsua.

Abade-soiñekoz jantzita neu ikusirik, senar-emazte biok Unbe'ko agertaldiai buruz nire eritxia zein zan itaundu eusten.

Ludi onetako materialismu-zalekeriz ondatuta gagozenontzat, Jaungoikoagan, Jesukristo'gan, Andra Maria'gan eta betiko bizitzan gogoia ipinteko astirik be ez dogula izaten esan neuntsen, eta orregaitik olako arazoak aztertu-bearra ondo etorriko dala.

Agertaldi orreik egiazkoak diran ala ez, norbaiten irudimenean dagozan ala ez, Eleizeak erabagi bear dau eta benetakoak izan ezker Jaungoikoagana ta Andra Maria'gana gizataldeen biotzak eta gogoak eroateko ta otoitz egiteko bidea izaten dira eta orduan ez dauko eragozpenik oneraspen ori onartzeko.

Nire eritxi au jakin eta ikusita, Unbe'ko jazokizunai buruz idazteko eskatu eusten, euskeraz eta euskerazko aldizkari baten bidez eritxi au jakin-azoteko.

Eta auxe egin gura dot gaur nire oiturazko izkuntzaz.

1858n. urtean Lourdes'en lez, 1917n.'ean Fatiman'n agertu zala Andra Maria diñoa eta Unbe'n be

orrelako agerraldiren bat izan eta dan 1968n. urtean zabaldu da katolikuen artean.

Unbe-ganean, bide bat artuaz baso-oian jabledun zabal batera sartzen gara, piñadi ta eukalitu-arteko toki gozo ta baketsura.

Iturri batetik urtendako ura, uste danez Andra Maria'k onetsitakoa, eltzen da osin batera.

An, berrogei ta amar neurkin barrurago, toki zelaitu baten, Sistiaga'tar Felisa ikuslearen sendia bizi zan baso-etxea agertzen jaku. Toki onetara etorten dira erromesak Ama Birjthearen etxean, agurtza egitera, errosaioa errezatera.

1941'eko epaillaren 25'ean, gabeko amabietan, Felisa'k bere etxeko suetean goitik jatsiten zan dirdari aundi bat ikusi ei eban. Txoko baten ikusi eban Andra Maria eta belaukinkatu, bere alboetan argi bana iziotuta eban. Neketsu lez jantzita, eder-ederra, irribarrez, amazortzi urte inguruko neskatilla baten antzekoa zan.

Felisa lilluratuta, poz-pozik, geratu zan.

Birjiñak ez eutson barbarik egin eta beingoan alden du zan.

1969'ko urrillaren 9'an, gabeko amarretan, Sistiaga'ren Sendia osiñaren ondoan aurkitzen zanean, aingeru bat agertu ei zan Andra Maria'ren Mezulari.

Onek uleguri edo tertziopelo-zati bat emon eutson, Birjiñaren irudia alangoxea izan bear zala adierazoz.

Felisa'k aingerua ikusi eban beste etxekoak dirdari bizi-biziak eta baita aingerua bera be une baten, zeruko abestaldien abestiak entzuten ebezan artean.

1970'ean, garagarrillaren 14'an, Agurtza esaten egozala, Birjiñea agertu jakon Felisa'r eta auxe esan eutson: «Lurrean bete egizue nire guraria, nik zeruen zuena beteko dot-eta. Neuk urrinduko dautzuedaz negar-zotiñak eta antziak.

1970'eko garangarrillaren 31'n Ama Birjiñeak beste au esan eutson: «Nik eskintzen dodana bete egiten dot eta urak osatu egingo dau». Eta iru notin osatu ei ziran.

1970'eko zemendiaren 30'ean agurtza esateko batuta egozala, argi bat ikusi eben ara etorriak eta Felisa ikusleak Ama Birjiñea ikusi eban eurakaz batera agurtza esaten. Mundura bakea ekarteko bere naia agertu eta toki aretara otoitz egitera etorteko eskatu ei eutson.

Lenengoz agertu zan gelan, 1978'ko irailaren 2'an eleiz-inguru-ostean, ipiñi zan Ama Neketsu Garbiaren irudia zurez, egurrez, trebeki landuta, uleguri edo tertziopelozko soingaiñeko baltzez jantzia. Orrean bete zan bere gurari bat.

LETONA'k

